


Arabako emakume zientzialariek diote...



Ekimenaren sustatzaileak:



araba  álava
foru aldundia diputación foral

 **Deusto**
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

Parke
EUSKADIKO
PARK
TEKNOLOGIKOA



Edizioa: Arabako Foru Aldundia

Egilea: Inspira STEAM - Deustuko Unibertsitatea

Diseinua eta ilustrazioak: María González de Benito

Data: 2026eko otsaila



Aurkezpena

Otsailaren 11n, Emakume eta Neska Zientzialariaren Nazioarteko Eguna ospatzen da. Data hori Nazio Batuen Batzar Nagusiak aldarrikatu zuen 2015ean, esparru zientifiko eta teknologikoan emakumeen parte hartzeak duen garrantzia aitortzeko eta ikusarazteko.

Otsailaren 11ren helburua da emakumeek eta neskek zientziarekiko, teknologiarekiko, ingeniartzarekiko, arteak eta matematikarekiko duten interesa sustatzea eta, horrez gain, zientzialariek, ikertzaileek eta ingeniariak historian zehar eta gaur egun egin dituzten ekarpenak nabarmentzea. Asmoa da emakume gehiago inspiratzea zientzia eta teknologiko ibilbide profesionaletan parte hartzera, eta arlo horietako askotan oraindik dauden genero-oztopoak gainditzea.

Data horrek gogorarazten digu zientziak inklusiboa eta askotarikoa izan behar duela, eta emakumeen, gazteen eta nesken talentua, gizonenarekin batera, funtsezkoa dela munduan arlo zientifiko eta teknologikoan aurrera egiteko.

Testuinguru horretan, eta Arabako Foru Aldundiaren, Deustuko Unibertsitatearen eta Euskadiko Parke Teknologikoaren arteko lankidetzaren esparruan, Arabako STEAM Emakumeen Koadernoak kaleratu dugu aurten, Arabako Lurralde Historikoan lan egiten duten emakume zientzialariak eta teknologoak erakusten dituen. Beren erakundeei eta gizarteari ekarpen handiak egiten dizkieten emakumeak dira, etorkizuneko belaunaldientzat inspirazio iturri izango direnak.

2018az geroztik, hiru erakunde horien arteko lankidetzaren helburua da neska gazteek STEAM arloekiko duten interesa sustatzea, zientzian eta teknologian gertuko erreferenteak erakustea, gizarte osoa genero arrakalari buruz sensibilizatzea, eta ikastetxeekin, enprekin eta beste erakunde batzuekin lan egitea, lanbide horien askotariko profilak, garapen profesionalerako aukera zabalak eta erronka sozialei aurre egiteko egiten duten ekarpen handia erakustea.

Inspira STEAM Baliabideak

Inspira STEAM programa aitzindaria da, lehen hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 1. mailako ikasgeletara gertuko STEAM emakumeak eta gizonak eramaten dituen, neskekin eta mutilekin batera, arlo horietako interesa piztu eta ikasketak jarraitzeko orduan aurkitzen dituzten oztopo nagusiei heltzeko. Edizio horietan guztietan, Arabako lehen eta bigarren hezkuntzako eskoletako 1.404 mutilek eta 1.367 neskek parte hartu dute, 61 ikastetxeetako geletan aholkularitza egin duten 158 emakumeren eta 7 gizonen eskutik.

Familientzako tailerrak: Familia osoarentzako jarduera bat da, genero ikuspegia integratzen duena eta arlo horietako genero arrakalari buruz sentsibilizatu nahi duena.

Genero-ikuspegia duten zientzia eta teknologia tailerrak ikasgeletan: Lehen eta bigarren hezkuntzara zuzenduak. Inspira STEAM taldeko emakumeen bidez, zientziari eta teknologiari buruzko tailerrak ematen dira Arabako ikastetxeetan.

Irakasleentzako prestakuntza: Gure ibilbidean lortutako ezagutzari eta esperientziari esker, irakasleak prestatu dira, eta gida bat egin da, Lehen Hezkuntzako STEAM arloetan genero ikuspegia txertatzeko baliagarria izan daitekeena.

Arabako STEAM emakumeak begien bistan jartzeko, eta otsailaren 11n "Emakume eta Neska Zientzialariaren Nazioarteko Eguna" dela eta, kartelen kanpaina bat egin da Arabako saltokietan, Arabako STEAM emakumeak erakusteko. Hain zuzen ere, koaderno hau ekimen horren jarraipena da.

Gainera, aholkularien profilak programaren webgunean erakusten dira edizio bakoitzaren arabera sailkatuta.

Horietako batzuk beren lanbidea partekatzerantz animatu dira bideo labur batean, Konta Iezaguzu zure lanbidea ekimenean. Webgunean ere eskuragarri dago.

Jarduera horiek eta sortutako baliabideak programaren webgunean kontsultatzera animatzen zaituztegu: Inspira STEAM. Eta ekintzetako edozeinetan parte hartzeko informazioa ere eska dezakezue: inspira@deusto.es

Emakume Zientzialariak Araban





Laura Santamaría Alonso

Gasteiz (1978)

“Ez dago poz handiagorik gure softwarearekin eta teknologiarekin pertsonei laguntzea baino”

Project managerra da Lantek-en, CAD/CAM/ MES/ERP softwareko txapa eta metalaren mozketara eta prozesatuaren sektoreko eraldaketa digitalerako enpresa liderrean. Bezeroei industria prozesuak digitalizatzeko laguntzen die eraginkortasunez eta errentagarritasunez.



Jaione Arteaga Ullibarri-Arrazua

Gasteiz (1975)

“Nire ustez, zientziaren erabilera egokia gizateriaren aurrerakuntzaren isla betea da. Harro nago horretan nire ekarpen txikia egiteagatik”

Liof Pharma-ko mikrobiologiako arduraduna. Enpresak biologikoki goi mailako botiken eta molekula txikien fabrikazio aseptikoan dihardu.

Biologian eta Biokimikan lizentziaduna da Nafarroako Unibertsitatean, Mikrobiologia, Immunologia eta Parasitologiako graduondokoa Euskal Herriko Unibertsitatean. 2010ean, Liof Pharma enpresako sormen taldean sartu zen.



María Tovar Zudaire

Iruña (1980)

“Zientzia mundua ezagutzea eta ulertzea da, gauzen zergatia galdetzea, jaiotzetik dugun jakin-mina sekula bazterrean utzi gabe. Hala uste dut”

Liof-Pharmako Kalitateko zuzendaria eta zuzendari teknikoa, enpresa farmazeutiko batean. Enpresak botika biologiko esterilak eta balio erantsi handikoak egiten ditu etapa kliniko eta komertzialetarako.

Euskal Herriko Unibertsitateko Farmaziako lizentziaduna eta Farmazia Industriako Zuzendaritza eta Kudeaketako MBA; botiken kalitatea ziurtatzean espezializatua, industria farmazeutikoaren estandar zorrotzak betetzeko.



Leire Saez de Camara Arranz

Gasteiz (1982)

“Nire ustez, zientzia eta teknologia teoriak eta soluzioak aurkitzea ikasteko plazerra izatea da, natura behatuz, gerora gure egunerokoan aplikatzeko, bai lanean eta bai eguneroko bizitzan”

Industria ingeniari teknikoa eta produktu mekanikoen garapeneko teknikaria. Duela 26 urte emakume bat mundu teknologikoan murgiltzea eredu guztiak apurtzea zen. Ez zen erraza izan gizonezkoen lan merkatuan sartzea. Orain I + G taldeko kide bat naiz enpresa multinazional batean eta ekoizpen prozesu berriak garatzen ditut eta berriro ere arriskatu nintzateke!



**Cristina
Luengo**

Gasteiz (1985)

“Zientziak aurretik ditugun erronka global handiei erantzunak emango dizkie”

CIC energiGUNEko laborategiko teknikaria da. Energia termikoko soluzioen arloen egiten du lan, zenbait ikerketa proiekturi euskarria ematen, bereziki egoera solidoko erreakzioen taldearen barruan.



**Rosalía Cid
Barreno**

Badajoz (1980)

“Zientziagizakiak garatutakoen tresnarik onena da bizi garen unibertsoak hitz egiten duen hizkuntza deszifratzeko eta, hizkuntza horretan hitz eginda, unibertso hori moldatzeko modua ematen digu mundu hobea lortzeko”

Gaur egun, Arabako Parke Teknologikoan dagoen CIC energiGUNEko Gainazalak Aztertze Unitateko arduraduna da eta energia biltegitratzeko hainbat sistemaren interfazeak aztertzen eta optimizatzen dihardu, soluzio berritzaile efizienteagoak eta jasangarriagoak bilatzeko.



**Montse
Qalcerán**

La Palma de Ebro (1977)

“Zientzia aurrerakuntza guztietarako bizi iturri da, jasotzen joan naizen zerbait itzultzeko modua ematen didana, hobetu dadin”

Sodio bateriako eta birziklapeneko ikertzaile seniorra CIC energiGUNEen.

Bere ikerketaren ardatza kostu txikiko material ekologiko berrien garapena eta optimizazioa da, energia biltegitratzeko sistemen hurrengo belaunaldirako, eta errendimendu elektrokimikoarekin korrelazioan jartzea.



**Kristina
Apiñaniz**

Gasteiz (1972)

“Zientzia ezinbestekoa da deskarbonizaziorako eta ingurumena babesteko”

Industria ingeniaria, mekanikako espezialitatea, Bilboko Ingeniaritza Eskolatik, gaur egun Interim Manager gisa lan egiten du enpresa industrialetako hainbat proiektutan.

25 urtetik gorako esperientzia du gerentzia-eta gobernu-postuetan, eta aditua da iraunkortasunean, estrategian, hazkunde organiko eta ez-organikoan eta zuzendaritza-taldeen errendimenduaren hobekuntzan. 2023ko abendutik, gainera, Arabako Industria Ingeniaritzaren Elkargoko dekanoa da.



**Mercedes
Maroto-Valer**

Gasteiz

“Zientzia da nire pasioa eta pribilegiatua naiz, jasangarritasun globala lortzen lagunduko duen arlo batean lan egiten dudalako”

Erresuma Batuko Industria Deskarbonizazioaren Ikerketa eta Berrikuntza Zentroko (IDRIC) zuzendaria, Heriot-Watt Unibertsitateko errektoreordea (Jasangarritasun Globala) eta Karbono Soluzioetarako Ikerketa Zentroko zuzendaria da. Nazioartean ibilbide aitortua du jasangarritasun eta trantsizio ekologikoan, energia sistemetan, CO2 gasa atzitu, erabili eta biltegiatzean, hidrogeno teknologietan eta erregai jasangarrietan. 600 argitalpen baino gehiago ditu eta lidergoko postuak ditu elkarte profesionaletan, argitalpen kontseiluetan eta gobernu erakundeetan. Nazioarteko sari eta domina ugari jaso ditu Mercedesez, tartean Arabako Urrezko Domina (2024) eta Britainiar Inperioko Ordena Txit Goreneko kondekorazio Ofiziala (2026).



**María Paloma
Gonzalo Vidal**

Barakaldo (1965)

“Teknologiak distantziaren eta denboraren mugak murrizten laguntzen digu eta pertsonen lana errazten du. Giza bizitzaren edozein esparrutan eragina izateko aukera ematen digu. Zoragarria da!”

2008tik Vidrala Taldeko informazioaren teknologietako zuzendaria da, Laudion, beirazko ontzien fabrikazioan diharduen multinazional batean. Deustuko Unibertsitateko Informatikako lizentziaduna da; lanbideko karrerarik gehiena industria enpresetan eman du, soluzio teknologikoen bidez negozioan laguntzen.



**Lidia
Almazán Torres**

Igualada, Bartzelona (1984)

“Gure inguruko munduak zelan funtzionatzen duen jakitea gogoko dut eta zientzia nire jakin-mina asetzeko bidea da”

Datuen zientzialaria da Lantek-eko adimen artifizialeko sailean. Pertsonen lana erraztea da haren eginbeharra, makinak arazoak konpontzeko gaitasunez hornituz. Bartzelonako Unibertsitateko Fisikako lizentziaduna da eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Matematika Aurreratuko masterra du. Doktoregoa Alemanian egin zuen, konputazio zientzietan, jariakinen portaera hainbat egoeratan simulatuz.



**Maica
Morant-Miñana**

Ador, Valentzia (1979)

“Jakintza eta prestakuntza ezinbestekoak dira independentzia eta askatasuna izateko”

Valentziako Unibertsitateko Farmaziako lizentziaduna naiz. Doktoregoa unibertsitate bereko Kimika Organikoko sailean egin nuen, argi ultramareak farmakoen eta proteinen arteko erreakzioak zelan fotosentsibilizatzen dituen ikertzen. Europako hainbat zentroetan lan egin dut, gai asko ikertzen: materialen zientzia, mikrosistemak, elektrokimika, biosentsoreak eta optika. Hori dela eta, diziplina ugariko profila dut, biologia, fisika, kimika eta ingeniariatzako ezagutzekin bateratzen dena. CIC energiGUNEko ikertzaile elkartua naiz eta bertan dihardut ikertzen egoera solidoko bateriak eta zelan txertatu errendimendua hobetuko duten material berritzaileekin.



**Sonia Martín
Fernández**

Gasteiz (1976)

“Klima aldaketak kezkatutik, ahal dudan guztia ematen saiatzen naiz nire sektorean eta nire ezagutza oinarri harturik, gure hiru umeei planeta hobea uzteko”

Gasteizeko industria ingeniari teknikoen eskolako diplomaduna naiz eta ARIMA LEKU arkitektura estudioko bazkidea. Proiektatzen eta/edo zaharberritzen ditugun eraikinen portaera energetikoa aztertzen dut, ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen.



**Leire Balzategui
Urrutia**

Arrasate (1988)

“Zientziak ezagutza berriak sortzen ditu, hezkuntza hobetzen du, baita gure bizikaltatea ere”

Bide, Ubide eta Portuetako ingeniaria, Garraioen Plangintza eta Modelizazioan masterrarekin. Nazioarteko esperientzia garraio eta mugikortasun proiektuetan. Uneoro erronka berrietara irekita, eta nire lana zein zirrargarria den zabaltzeko prest.



**Vanesa
Martínez Tomé**

Donosti (1979)

“Zientzia munduak zergatik funtzionatzen duen galderaren erantzuna eta, aldi berean, hobetzen laguntzen diguten galdera guztien erantzuna”

Ingeniaritza batean airea girotzeko instalazioak diseinatzeko aritu nintzen 10 urtez eta, gero, bulego teknikoko arduradun izan nintzen instalazio enpresa batean, diseinatzeaz gain, diseinu horiek muntatze lana ere bizitzen. Gogoko dut eraginkortasun energetikoarekin, energia berriztagarriekin eta dauzkagun baliabideak ondo erabiltzearekin zerikusia duen guztia; eta, gaur egun ere, ikasten jarraitzen dut.



**Ainhoa
Labrador Alonso**

Gasteiz (1986)

“Zientziak gauzen zergatia ulertzen laguntzen digu, guztiari zentzua ematen, eta teknologiak horiek sortzen laguntzen digu”

Ingeniari mekanikoa, Automozioko espezialitatean. Automozioko irakaslea Egibiden duela 13 urtetik hona. Nire ikasketak hasi nituenetik, Automozioko Lanbide Heziketako ikasketak egin dituen emakume bakarra izan naiz gizonen munduan. Pixkanaka, emakume gehiago bidea egiten ari gara automobilaren munduan, baina oraindik asko dugu egiteko.



**Eztizen
Echevarria**

Barakaldo (1987)

“Zientzia eta teknologia dira, nire ustez, inguratzen gaituen mundua hobeto ulertzeko jakin-mina asetzen duten bideak, eta gertakariak eta iritziak bereizten laguntzen dutenak”

Telekomunikazioetako LHko eta Informatikako OLH-ko irakaslea, nazioarteko talde bateko proiektuetan ingeniari gisa aritua. Hezkuntzaren defendatzailea, garapen sozialaren eragile gisa, kultur aniztasunaren zale amorratua eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko STEM prestakuntza bultzatzen duena.



**Icíar
Monterrubio**

Segovia (1993)

“Nire ustez, zientzialaria inguruan duguna neskato baten jakin-minarekin begiratzea da, gauzen zergatia galdetzea eta gure munduari buruz ikasiz ondo pasatzea da”

CIC energiGUNEen ikertzaile gisa lan egiten dut, eta nire doktorego tesia Li-ioia eta Na-ioia baterietako elektrodoentzako materialen garapen azeleratuan egin nuen. Bateriak osatzen dituzten materialak ikuspegi teoriko-esperimentaletik aztertzen ditut eta, besteak beste, adimen artifizialaren eta modulu automatizatuen erabilerari esker, sintesi prozesuak automatizatzea lortu. Gaur egun, ‘degradazio, zahartze eta segurtasun mekanismoen’ taldean lan egiten dut.



Iratxe López de Subijana Esteban

Gasteiz (1999)

“Niretzat, zientzia gauzen jatorria eta arrazoia ulertu ahal izatea da. A priori urrunekoak eta loturarik gabekoak diruditen diziplinen arteko lana ahalbidetzen duen ingurunea da”

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzako masterreko bigarren mailako ikaslea eta Santanderko Bide Eskolaren eta l'École des Ponts ParisTech-en arteko diploma bikoitzeko partaidea. Gaur egun, nire azken seihilekoa Parisen egiten ari naiz, eta laster itzuliko naiz Espainiara ikasketak amaitzeko. New Yorkeko egituren diseinuaren arloan urtebeteko lana egin ondoren, klima-aldaketaren ondorioetatik babesteko, trantsizio ekologikoa bultzatzeko eta komunitate kaltegarrien garapena bultzatzeko azpiegiturak eraikitzen jarri nahi dut arreta.



Marta Martínez Prado

Gasteiz (1991)

“Zientzia etorkizuna da, gizarteak aurrera egitea ahalbidetzen du, behaketaren eta esperimentazioaren bidez konponbideak etengabe bilatzen dituelako”

Txinan 6 urtez ibili nintzen proiektuz proiektu, hiriz hiri, fabrikaz fabrika... etxera itzultzea erabaki nuen, gelditu eta pentsatzeko zer ekarpen egin nezakeen esperientzia horiekin guztiekin. Nire bazkidearekin batera, geure ingeniaritza enpresa sortzea erabaki nuen, oinarri teknologikoko proiektuak garatzeko, benetako beharrei erantzuteko, GJHak oinarri hartuta. Zuzendari exekutiboa naiz, baina, horrez gain, aktiboki parte hartzen dut produktuaren garapenean, hornitzaileen kudeaketan eta bezeroen jarraipenean.



**Beatriz
Andújar**

Burgos (1977)

“Niretzat zientzia mugitzen garen Mundua ulertzeko dugun tresna bakarra da”

Quality Managerra Lontana Group-en, ingurumenean eta prebentzioan integratutako sistemen kalitatearen kudeaketan dihardut, modu jasangarrian sektore hauetarako: industria, automozioa, arlo aeroespaziala, energia berriztagarriak, arkitektura, eraikuntza, defentsa. Kimika Zientzietan lizentziaduna eta Ingurumen Osasuneko graduondokoa Ganteko Unibertsitatean, Belgikan. 2023an Lontana Group enpresan sartu zen.



**Eneritz
Zubizarreta**

Gasteiz (1986)

“Zientzia mundu zoragarria da niretzat, ikertzeko eta aurrera egiteko aukera ematen didana, mundu hobea izan dezagun ez dut zientziarik gabeko mundu bat ulertzen”

Global Testing-en sortzailekidea eta COOa da. Enpresa software-ko probak egiten eta sistemen monitorizazioan aritzen da. 2021ean Globe Testing lizentziatutako enpresak erosi zuen, eta lizentziatutako enpresako QA arloko zuzendaria da. Informatikako ingeniaria Gasteizko Ingeñiaritza Eskolan. Java programatzaile lanetan ekin zion laneko ibilbideari. 2014an, ekintzaile gisa aritzea erabaki zuen beste bi bazkiderekin batera Global Testing enpresan. Konpainiak Arabako parke teknologikoan, Madrilan, Bartzelonan, A Coruña eta Berlinen ditu egoitzak eta 2016an Araba enprende saria jaso zuen.



**Virginia
Sáez**

Santurtzi (1977)

“Bizitzeko eta lan egiteko modu bat da, metodo zientifikoa, eta hari laguntzen dion mundua ezagutzeko jakin-mina eta modua pertsonari dagozkio”

Polimeroen Kimikako doktorea. AEBn (Johns Hopkins University) eta Ingalaterran (Aston University) lan egin du produktu biomedikoei aplikatutako eta ehunen ingeniartzako biomaterialen arloan. Marie Curie doktoretza-ondoko europar saria jaso zuen, bi urtekoa, lentilletako estaldura terapeutikoak aztertzeo. Aditua da polimeroen matrizeen sintesian eta karakterizazioan, elastomeroetan, hidrogeletan, nonopartikuletan, estaldura terapeutikoetan, farmakoen askapen kontrolatuan, in vitro saiakeretan.



**Ainhua
Calleja**

Gasteiz (1976)

“Behaketaren, ikerketaren, analisiaren eta arrazonamenduaren bidez, gure inguruan gertatzen dena azaltzeko bilaketa zirrargarrian gozatzea da zientzialaria izatea”

Zientzia Fisikoetan lizentziaduna eta Elektronikako ingeniaria da EHUn. Ibilbide profesionala hainbat erakunde publiko eta pribatutan garatu du, programatzailer, I+G+b-ko arduradun eta teknologiaren transferentzia bultzatzen sektore publikoaren eta pribatuaren artean. Duela 15 urtetik hona, Euskadiko Parke Teknologikoko enpresentzat balio erantsiko zerbitzuak diseinatzen eta martxan jartzen eta zientzia eta teknologia gizartera hurbiltzeko ekimenak garatzen ari da, bokazio zientifikoak eta teknologikoak ugaritu daitezen.



**Ainhoa
Corcuera**

Reading (1977)

“Niretzat zientzia gizateriarentzat beharrezkoak diren gai konplexuak argitzen dituen itsasargia da. Ikerketarik gabe, argi dago gaur egun baino okerrago egongo ginatekeela”

Gaur egun, Automatizazioko eta Robotika Industrialeko Heziketa Zikloko irakaslea naiz Egibiden, eta egunero gozatzen dut nire lanbideaz. Nire lanbideko arloa etengabe ari da eboluzioan, beraz, prestakuntza eta ikaskuntza etengabekoak dira gure ikasleei puntako teknologiak eskaini ahal izateko, betiere gure aukeren barruan. Oraindik ez dut lortu gure ikasleen artean emakume gehiago ez ikusteagatik dudan arantzatxoa kentzea.



**María
Arnaiz**

Gasteiz (1993)

“Garrantzitsuena da zure talentuan sinestea eta gogoratzea emakumeok ere STEM lanbideen parte garela”

Ikertzaile seniorra CICenergiGUNEko gelaxken prototipoen taldean. Kondentsadore hibridoak eta sodio-ion bateriak garatzen eta eskalatzen dihardu, zehazki elektrodoen prozesaketan eta karakterizazioan, bai eta amaierako sistemen optimizazioan eta garapenean ere.



**Montserrat
Casas**

“Sinistu zeuregan: zenbat hazi zaren ikusteko, atzera begiratzeak aurrera begiratzeko konfiantza emango dizu”


Ikertzaile seniorra CICenergiGUNEko gelaxken prototipoen taldean. Kondentsadore hibridoak eta sodio-ion bateriak garatzen eta eskalatzen dihardu, zehazki elektrodoen prozesaketan eta karakterizazioan, bai eta amaierako sistemen optimizazioan eta garapenean ere.



**Nuria
Qisbert**

“Zientzia gizateriak dituen erronkei erantzuteko modua da. Zientziaren bidez erantzuna aurkitzen dugu, etorkizuna elikatzen dugu eta balioa sortzen dugu”

CICenergiGUNEko zuzendari nagusia da. Doktore enpresa zuzendaritzan, ezagutzan eta berrikuntzan. Energiaren ikerketa eta mentoringari buruzko ikerketa bateratzen ditu, garapen profesionalerako formula gisa.



**Nagore
Ortiz**

Gasteiz (1983)

“Nahikoa da jakin mina izatea STEM bokazioa garatzeko”

Garraioko eta Interfaseetako taldeko liderra eta CICenergiGUNEko aire metaleko baterien ikerketa lerroaren arduraduna.

Ikerbasque Associate Professor ikertzaile gisa lan egiten du metal-aire baterietan energia biltegitratzeko eremuan.



**Raquel
Ferret**

“Zientzia ezagutzen ez dugunaren berri izateko bidaia zirrargarria da”

CICenergiGUNEko negozio garapeneko zuzendaria da, oinarritzko ikerketaren eta industriaren arteko harremana sustatzen du eta ikertzaileei ikerketa jarduera sortzen, garatzen, finantzatzen eta ustiatzen laguntzen die.



**Mariaje
López**

Barakaldo (1972)

“Nahi dudan horretan zentratzen naiz eta hori lortzeko ahalegina zuzentzen dut ezerk edo inork geldiarazi gabe”

Ekintzailea eta gaur egun, aholkulari eta informatika teknikaria enpresetarako, profesionalentzako eta ekintzaileentzat. Niretzat, Aholkulari eta Informatika Teknikaria izateak bizimodu bat eta eguneroko hazkundera suposatzen du maila pertsonalean eta profesionalean, beste pertsonen Teknologiarekin erlazionatzen eta haien helburuak lortzen lagun dezaketela ikusita. Jendeak informatika lan tresna gisa ikusten laguntzea gustatzen zait eta hori menperatzea posible dela, nahikoa da oztopatzen gaituzten eta ikastea eragozten diguten harriak kentzea.



**Miren
Bilbao**

Bermeo (1977)

“Zientziarik gabe ez dago etorkizunik, eta etorkizuna guztion artean eraiki behar dugu”

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Industria Ingeniaritzan lizentziaduna da. 20 urtetik gorako ardura-postuetan ibilia, gaur egun Euskadiko Parke Teknologikoko gerentea da, Gasteizko campusean. Lehen eguneko grina eta ilusio berarekin ematen da egunero, etorkizuneko proiektuak erakartzeko eta sortzeko, hainbat sektore estrategikotan, hala nola osasun pertsonalizatuan, industria adimentsuan edo energia garbiagoetan, gizartearen oraina hobetzeko eta etorkizuna sortzeko helburuarekin. Bere eginkizuna ekosistema zientifiko-teknologikoak eratzea da, gizateriaren erronkak konpontzen dituzten enpresak eta talentua erakarriz eta lagunduz.



**Victoria
del Río**

“Lan zientifikoak jakin-mina, gogoa, pazientzia eta mundu hau leku hobeto bihurtzen laguntzeko gogoa eskatzen ditu”

Zientzia Fisikoetan eta Ingeniaritza Elektronikoan lizentziatua naiz Euskal Herriko Unibertsitatean. EHUko Informatika Zentroan lan egin dut, Ikerlan Teknologia Zentroan, eta softwarea garatzeko startup Conexia sortu dut. 15 urte baino gehiago daramatzat Euskadiko Parke Teknologikoko Lankidetzeta eta Zerbitzuen Arloko arduradun gisa, berrikuntzarekin, eragile zientifiko-teknologikoen arteko lankidetzarekin, talentua erakarri eta atxikitzearekin eta Zientzia eta Teknologia gizartera hurbiltzearekin lotutako proiektuetan lan egiten.



**Juana
Valer**

Iruña (1962)

“Zientzia ezagutza da, jakin-mina, misterioa, pasioa, edertasuna, abentura, irudimena...”

Nafarroako Unibertsitatean ikasi zuen materialen ingeniaritza, mekanikako espezialitatean. Materialen zientzian espezializatzen hasi zen ikasketa-amaierako proiektuan. Unibertsitate berean eskuratu zuen doktoretza. Europar Batasunak ematen dituen Marie Curie beka bat eskuratu zuen doktoretza-ostekoa egiteko eta ikerketa-proiektu batean egin zuen, materialen zientziaren arloan, ITER (International Thermonuclear Experimental Reactor) fusio-erreaktorearen garapenari lotuta. Gaur egun Aernova Engineering Division delakoan Materialen eta Prozesuen Saileko arduraduna eta egitura aeronautikoen diseinuan, fabrikazioan eta ziurtatzean hartzen du parte



Izaskun Arriaga Armentia

Gasteiz (1989)

**“Gizarte anitz baten elkarlanak
garapen zientifikoa aberasten du”**

Osasun produktu arduraduna Optimus3Dn. Diseinu eta fabrikazio gehigarri teknikaria. Industria Diseinu Ingeniaritza Teknikoa eta Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Gradu ikasketak egin ostean (Mondragon Unibertsitatea-Goi Eskola Politeknikoa), osasun eta kirol arloek piztutako interesak edio, Ingeniaritza Biomedikora bideratu zituen ikasketak; 2013an Goi mailako Masterra UPV-EHUn eta hainbat ikastaro ordutik hona. 2016. urtean Optimus3D-ko ingeniari eta ikerkuntza taldera batu zen eta gaur egun, osasun proiektuen arduraduna da.



Soraya Prieto Fernández

Leon (1978)

**“Eraiki dezagun elkarrekin denontzat
etorkizun garbiagoa, osasungarriagoa
eta bidezkoagoa, zientziaren
teknologiaren eta ekonomia
zirkularraren bidez”**

20 urte baino gehiago daramat lanean TECNALIAN, irabazi asmorik gabeko fundazio pribatu batean, ikerkuntzan, garapenean eta berrikuntza teknologikoan. 68 pertsonako taldearekin batera, ekonomia zirkularraren esparruan ikertzen dut, arreta berezia jarritz uren tratamenduan, CO2 atzematen eta erabiltzen, eta hondakinak birziklatzen eta berrerabiltzen.



Estibaliz Rotaheche Cortés

Bilbo (1973)

“Soluzio informatikoen diseinua diziiplina zientifiko aplikatua da, eta helburua da hainbat sektoretako enpresetako prozesuak hobetzea eta optimizatzea”

25 urte daramatzat aholkularitza informatikoko enpresei lotuta. Gradu bikoitz bat eta MBA bat ikasi nituen. Aholkulari, proiektuen arduradun eta analytics arloko kudeatzaile gisa lan egin nuen, baita SAP saileko proiektuen zuzendari ere. Gaur egun, digitalizazio-proiektuak zuzentzen ditut industrietan eta hornidurakateen hobekuntza, berrikuntzako eta giza baliabideetako sailak kudeatzen ditut. Lan honi esker, hainbat eratako prozesuen hobekuntzan parte hartzeko aukera dut enpresa eta sektore-mota askotan, estatu eta nazioarte-mailan.



Mariela Carolina Figuera

Caracas (1982)

“Zientzia da gure amets guztiak errealitate bihurtzeko eta gure beharrei irtenbidea emateko bidea”

Venezuelako Unibertsitate Zentraleko medikua naiz. Gasteiz bizi naiz 2009tik. Anestesiologian, erreanimazioan eta minaren tratamenduan aditua naiz Txagorritxu Ospitalean. Bi seme-alaba ditut, mutiko bat eta neska bat, eta nahi dut beren etorkizuneko lanbidea askatasunez aukeratu dezaten. Gaur egun, Minaren Kontsulta batean lan egiten dut, min kronikoa duten pazienteei laguntzen, eta hainbat estrategia jartzen ditugu praktikan.



Maite Iris García

Gasteiz (1988)
*Foto de Alea

“Arkeologia biomolekularrak aukera ematen digu iraganean ahotsik izan ez zuten pertsonei ahotsa ematen”

Erdi Aroko populazioen azterketan espezializatutako arkeologo biomolekularra naiz. Euskal Herrian, Italian eta Erresuma Batuan ikasi dut, eta Europako hainbat unibertsitaterekin lan egin eta elkarlanean aritzen naiz. Nire ikerketa indusketa arkeologikoetan lurpetik ateratako pertsonak nortzuk ziren ulertzea. Analisi isotopikoen bidez, iraganeko elikadura eta migrazioak aztertzen ditut, eta idatzizko dokumentuetan arrastorik utzi ez zuten emakumeak, neskak eta bazterturako pertsonak bereziki.



Azucena Hernández Palmero

Madril (1969)

“Autoa lau gurpilen gaineko megaordenagailu bat da, 120 km/h-ko abiaduran zirkulatzen duena eta pertsonak bidaiatzeko erabiltzen dutena; hori dela eta, birus baten edo cracker baten erasotik ziberbabestu behar da, mugikor edo ordenagailu baten modu berean”

ESTP teknologiaren asmatzailea, munduan bakarra, ibilgailu baten zibersegurtasun maila ebaluatu eta ziurtatzen duena Europako zibersegurtasun araudiaren arabera: UNECE/R155. Mugikortasun konektatuari aplikatutako zibersegurtasunean espezializatutako lehenengo ikastaroen sortzailea ere bada.



**Sonia Alonso
Martín**

Gasteiz (1976)

“Ikerketaren arrakasta aurkikuntza txiki bakoitzarekin sentitzen dugun pasiotik sortzen da”

Jakin-mina jaiotzatik izan dut eta inkonformista izan naiz nerabezaroan; hori dela eta Biologia ikastea erabaki nuen. Madrilen lizentziatu nintzen, Genetikan espezializatu, eta nire doktorego tesia egin nuen, nire kezka zientifikoa motibatuz. Ilusioz beterik, beste 10 urtez jarraitu nion jakituriaren bidaiari Parisen. 20 urte geroago itzuli nintzen Euskadira, Madrildik igarota. Gaur egun, AEAKo (alboko esklerosi amiotrofiko) ikerketaren buru naiz, muskuluen prismatik, zahartzetik eta ama-zelula helduetatik abiatuta.



**Elena Solana
Moreno**

Donosti (1971)

“Emakumeak zientzian eta teknologian: gaur egungoa berritzen, biharkoa eraldatzeko”

Industria Ingeniaritza ikasi nuen Nafarroako Unibertsitatean, eta ingurumen kudeaketako master bat Bartzelonako UPCn. 1997an, Gasteizko Mercedes-Benz taldearekin bat egin nuen ingeniari gisa. 2000n, ISO 14001 ziurtagiria gidatu nuen, eta 2013an ISO 50001 ziurtagiria. 2014tik, Due Diligenceko auditorea naiz bere planta globaletan. 2020-21 bitartean, Inspira STEAMen parte hartu nuen profezio zientifikoak sustatzeko. Gaur egun, beVisioneers mentorea naiz, gizarte eta ingurumen inpaktuko proiektuetan gazte berritzaileak laguntzen.



**Itziar
Díaz Tena**

Gasteiz (1990)

“Ingeniari izatea adimena zorroztea da munduak funtzionatu dezan!”

17 urterekin albaitaria izatea amesten nuen, baina ingeniaritzak nire interesa bereganatu zuen. Ingeniariak mundua diseinatzeko dutela konturatu nintzen. Beraz, beraietako bat izatea erabaki nuen. 21 urterekin, Michelinen hasi nintzen, kalitatearen arloan. Lau urteren ondoren, bidaiatu nahi izan nuen, eta Pragara joan nintzen bizitzera. Citrixen lan egin nuen eta gero Bobcat-en, hornitzaileak ikuskatzen hainbat herrialdetan. Bost hizkuntza ikasi nituen eta abentura handiak bizi izan nituen. Azkenean, Mercedes-Benzek deitu zidan kalitatea gidatzeko. Ingeniaritzak mundua ireki zidan: esploratzaile bat naiz!



**Laura Vega
González**

Gijón (1983)

“Zientziak eta teknologiak arazoei irtenbideak ematen laguntzen digute, aurrera egiten”

Duela 15 urtetik Centro Tecnológicas Aeronáuticas (CTA) fundazioan lan egiten dut. Suarekiko erreakzio eta ikerketa saiakuntzen laborategiko arduraduna naiz. Hegazkin barruko materialak probatzeaz arduratzen gara eta, gaur egun, hidrogenoaren errekuntzak abiaziorako etorkizuneko erregai jasagarri gisa izan beharreko ezaugarriak ikertzen ari gara.



Lidia Maeso Aragón

Gasteiz (1999)

“Nahasketa bioleta perfektua: zientziaren urdina odolaren gorriarekin bat eginda: zientzia, osasuna eta bihotza”

Arabako ikertzailea, 2022an Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) Farmaziako Sari Bereziarekin graduatua. Nire ikasketa urteetan hasi zitzaidan zientziarekiko grina eta han aurkitu nuen ikerketak osasunean duen eragina. Gaur egun, larruazaleko ehunen ingeniartzako doktoretza ikastaro bat egiten ari naiz, aldazio bioinprimatuak propietate autokonpontzaile eta teranostikoak dituzten ezaugarriak dituztenak garatzen, medikuntza erregeneratiboak aurrera egin dezan laguntzeko ilusioz beterik.



Irati Martínez Malax-etxebarria

Bilbo (1980)

“Mikrobiologia lanbide atseginenetako bat da, praktikatzen dutenei aukera ematen dielako gainerako natura zientziekin harremanetan egoten eta, horrela, giza bizitza hobetzen modu askotan laguntzeko”. Rene Dubos (1901-1982)

Biologian doktorea UPV/EHUan, Mikrolker mikrobiologiako ikertaldeko ikertzaile nagusia naiz, Gasteizko Farmazia Fakultatean, eta irakasle ere banaiz.

Nire ikerketak giza patogenoen azterketa eta karakterizazioa ditu ardatz nagusiki, birulentzia mekanismoak ulertzeko eta, horrela, horiek kontrolatzeko hainbat estrategiaren garapenari datuak eman ahal izateko.



**Paloma Martínez
de Aramaiona
Moncada**

Gasteiz(1984)

“Zientzia, teknologia eta pertsonak, dena eskutik. Bakoitzak bere aldetik, ez zuen inoiz garaipenik lortuko”

Zenbakiekiko, logikarekiko eta gauzen funtzionamenduetarako nuen grinak Mondragon Unibertsitatean Industria Ingeniaritza ikastera eraman ninduen. Nire lehen etapa profesionalean bi esperientzia nagusi bereiziko nituzke: Alemanian, bai mekanizazioaren sektorean, bai automobilgintzaren Tier 1 batean. Duela 10 urtetik hona, Mercedes-Benz España lantaldeko kide naiz eta, gaur egun, muntaketako prototipoen arloko arduraduna naiz. Gutako bakoitzaren ekarpen txikiarekin zerbait handia sortzeko ilusioak motibatzen nau egunero aurrera egiten.



**Laura
Acebo**

Madril (1991)

“Emakumeok berezko talentua dugu balentria handiak lortzeko”

Doktorea Materialen Zientzian eta Teknologian. 10 urte baino gehiago daramatza zientziaren hainbat arlotan lanean. Bartzelonako Energia Baliabideen Ikerketa Institutuan (IREC) hasi zen eguzki gelaxketarako material alternatiboekin. Gasteizko CICenergiGUNEen egin zuen doktoregoa, sodio baterietarako material katodikoei buruz. Ondoren, hainbat ikerketa zentrotan lan egin du: proiektzio termikoetan, fabrikazio gehigarrietan eta, gaur egun, auto elektrikoak garatzeko erronka handian dihardu.



**Begoña
Acebedo**

Madril (1976)

“Aurrerapen zientifikoa ez da soilik ezagutzen oinarritzen, baizik eta mundu hobe bat eraikitzeko ausardian, gertaerak ikertuz. Ezin dugu etorkizuna asmatu, baina etorkizuna garatzen lagundu dezakegu, jakin-minez, galderak eginez eta datuez baliaturik.”

Azken 15 urteetan, energia biltegitratzearen arloan garatu du ikerketako ibilbidea, Estatuko eta Europako ikerketa proiektu ugarietan parte hartu du, industriako ikerketa proiektuetan barne. Lanean, materialen garapena eta karakterizazioa du ardatz, baita energia biltegitratzeko hainbat sistema balioztatzean eta inplementatzean ere. Teknikari-lanetan hasi zuen ibilbidea eta, geroago, Kalitate, Ingurumen eta Laneko Osasun eta Segurtasuneko arduradun izan zen eraikuntza-enpresa batean. Aldi berean, eraikuntzako batzorde tekniko nazionalako kide izan zen, eta I+Dko proiektuetan ere parte hartu zuen.



**Elena C.
Gonzalo Martín**

Madril (1979)

“Zientziak mundua aldatzeko boterea du, eta emakume zientzialariok parte aktiboa izan behar dugu aldaketa horretan, gure esperientzia, ikuspen eta lidergoaz baliaturik etorkizun hobea eraikitzeko.”

Kimika Zientzietan lizentziaduna Madrilgo Complutense Unibertsitatean, litiozko baterietarako material katodikoaren arloko doktorego-tesia egin zuen. Bere ibilbidean zehar, hainbat ikerketa-egonaldi egin ditu elektrokimika arloan. Aipatzekoak dira Oxfordeko eta Batheko Unibertsitateetan (Erresuma Batua), Tübingeneko Unibertsitatean (Alemania) eta Uppsalako Unibertsitateko (Suedia) Angström Energia Laborategian egin zituen egonaldiak.

2012tik, CIC energiGUNEko ikertzailea da, eta profesionalki eboluzionatu du doktorego osteko ikertzaile gisa zenetik. Gaur egun, ikertzaile seniorra da. Europako hainbat proiektutan aktiboki parte hartu du, material katodikoak ez ezik, anodoak ere aztertutitu, baita material horiek korrante-kolektoreekin duten elkarrekintza ere, litio ioizko, sodio ioizko eta egoera solidoko baterietarako.



**María
Angulo Pérez**

Gasteiz(1976)

“Teknologia gizartea eraldatzeko tresna bat da. Ezagutza, hori posible egiteko motorra”

Informatikako ingeniaria eta eraldaketa digitaleko aholkularia da Arabako Foru Aldundian. Han egiten du lan herritarrei benetako balioa emateko teknologiaren bidez.

Deustuko Unibertsitateko irakaslea izan da, Industria Digitaleko graduari, eta Inspira STEAM programan parte hartu du, nesken eta gazteen artean bokazio zientifikoak sustatzeko. Gaur egun, AMPEAko Zuzendaritza Batzordeko kidea da. Asmoa duen teknologia inklusibo eta eraldatzailean sinesten du.